

• **Futbola**

Barcelona: Jose Mari Bakero blaugranen bigarren entrenatzailea izango da, eta Louis Van Gaalen aginduetara ariko da → **36**

• **Ziklo-krosa**

Euskal Herriko Txapelketa: Igandean jokatuko da karrera, Olano eta Zubeldia tartean direla, Asteasun → **37**

Selekzioa

Euskadi-Nigeria, asteazkenean

Goi mailako lehia San Mamesen

Nigeriako jokalaririk onenak lehiatuko dira Euskadiko selekzioaren aurka Katedralean

Ramon Basaldua / Bilbo

GUZTIA dago prest datorren asteazkenean Euskadiko selekzioak Nigeriaren aurka San Mamesen jokatuko duen partidurako (20:30, ETB 1). Xabier Exposito eta Jose Anjel Iribarrek zuzentzen duen taldeak jarraian jokatzen duen zazpigarren partidua da. Lehia guztiak Euskal Herrian jokatu badira, hurrengo helburua da partiduren bat bertotik kanpo jokatzea. «Horixe da gure xedea. Aurtengo udaran Paraguira joateko aukera izan genuen bertako selekzioaren aurka jokatzeo baina ezinezkoa izan zen jokalaririk gehienak oporrak hastear zedulako. Dena den, lanean jarraitzen dugu Euskadiko selekzioak beste herrialde batean joka dezan», esan zuen Laurentzi Ganak, Euskadiko Federazioko presidentea, atzoko prentsaurrean.

Euskal Federazioko arduradunek atzo aditzera eman zuten, Nigeriako jokalaririk onenak izango dira Katedralean. «Nigeriako selekzioa Malagan konzentratutik dago datorren urtarrean jokatuko den Afrikako Kopa prestatzen. Horrela bada, bertako jokalaririk onenak osatuko dute gure selekzioaren aurka jokatuko duen taldea» adierazi zuen atzo Laurentzi Ganak, Euskadiko Futbol Federazioko presidentea.

Nigeriako selekzioa datorren asteartean iritsiko da Bilbora Malagatik eta partidua jokatu osteko hurrengo egunean itzuliko da Andaluziara. Euskadiko selekzioari dagokionez, Jose Anjel Iribar eta Xabier Exposito zuzenduriko taldeak entrenamendusaioa egingo du San Mamesen partidu egunean goizeko 11etatik aurrera.



Jose Luis Larrea, Laurentzi Gana, Jose Anjel Iribar eta Xabier Exposito, Euskadi-Nigeria partiduaren aurkezpenean.

■ Bi selekzioetako deialdiak

Euskadi

| | |
|-------------------|-------------------|
| Imanol Etxeberria | Urrutia |
| Alberto | Alkiza |
| Olaizola | Guerrero |
| Pikabea | De Pedro |
| Aranzabal | Joseba Etxeberria |
| Carmona | Urzaiz |
| Alkorta | De Paula |
| Larrainzar | Idiakes |
| Mendieta | |
| Eskurza | |

Nigeria

| | |
|-----------|-------------|
| Tssan | Finidi |
| Aknuegbu | Ndubuisi |
| Amunike | Omokoh |
| Julius | Ejedegba |
| Echendu | Sodje |
| Amokachi | Pascal |
| Lawal | Taribo West |
| Babangida | Ikpeba |
| Murphy | Okocha |
| Kanu | Adepoju |
| | Emeka |

LAURENTZI GANA

(Euskadiko Futbol Federazioko presidentea)

■ ■ ■ «Udaran Paraguira joateko aukera izan genuen bertako selekzioaren aurka jokatzeo, baina ezinezkoa izan zen»

Nazioarteko Futbol Federazioak (FIFAK) arrisku handiko partidutzat jo du Euskadi eta Nigeriako selekzioek

jokatuko dutena. Hori delareta, datorren astelehenean bilera izango da Ibaigane jauregian Euskadiko Futbol

Federazioa eta FIFAKo ordezkarien artean.

Asteazkeneko partidurako sarrera garestienak 2.500 pezetatan (100 libera) salduko dira eta merkeenak 1.000 pezetatan (40 libera). San Mamesko lehiatutako zabalik izango dira astelehenean eta asteartean arratsaldeko 5etatik 8etara eta asteazkenean goizeko 10:30etatik eguerdiko 1era.

Jose Anjel Iribar

• EUSKADIKO HAUTATZAILEA •

«Nigeriaren aurkako partidua test garrantzitsua da guretzat»

■ **Nigeria aurkari gogorra izango da Euskadirentzat, ezta?**

Azterketa garrantzitsua izango da, guretzat zein Nigeriarentzat. Urtero legez goi mailako selekzioa osatu dugu, eta Nigeriak gizon onenak ekarriko ditu. Horrek esan nahi du partidu serio eta lehiakorra jokatzeo aukera izango dugula.

■ **Iaz zaleek ez zuen espero bezala erantzun. Oraingoan San Mames betetzea espero duzue.**

Sarrera bikaina espero dugu. Partidua jokatzeo eguna iazkoa baino egokiagoa da eta Bilbon jendeak erraztasun gehiago dituzte zelaira joateko. Esperientziak esaten digu San Mamesen beste leku batzuetan baino zale gehiago etorten direla.

■ **Noiz emango du beste urrats bat Euskadiko selekzioak?**

Hurrengo urratsa Euskal Herrikan kanpo partidu batzuk jokatzeo litzateke. Hurrengo urtean helburu hori lortzeko ahaleginak egingo ditugu. Beste urrats garrantzitsuagoak emateko borondate politikoa egon behar da. Horixe da gakoa. Garbi dago Euskal Herriko herritarren gehiengo Euskadiko selekzioaren alde dagoela.